

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Julian Albistur Aranburu

I AZKOAN ANDONI EGAÑAK BERE HIRUGARREN TXAPELA LORTU ZUEN

lazko Abenduaren 16an, Donostiako Belodromoan jokatu zen finalean, berriz ere, Andoni Egañak lortu zuen txapela, saio ederra burutu ondoren. Bere hirugarrena da, jarraian lortutakoa.

Uztapide handiak ere, bere garaian, 3 lortu zituen. Beraz, oraindano, bi bertsolariok dira 3 aldiz Euskal Herriko txapela irabazitakoak. *Basarri* eta Amuriza, euren garaian, birekin gelditu baitziren. *Tirrita*, Lizaso eta Lopategi, beste txapeladunek, bana lortu zuten.

Faborito nagusia Andoni izanik, esan dezakegu uste baino zailago jarri ziola hernaniar gazte eta trebe den Maialen Lujanbio, saio borobila egin ondoren. Oso gutxigatik Maialenek ez zuen txapela jantzi, baina erakutsi zuen, ongi erakutsi gainera, bere buruan ere ez legokeela gaizki. Maialen bikain aritu zen.

Sailkapena, honela gelditu zen:

	<u>Puntuazioa</u>		<u>Puntuazioa</u>
1. Andoni Egaña	1922	5. Sustrai Colina	1256,5
2. Maialen Lujanbio	1906,5	6. Unai Iturriaga	1252
3. Aitor Mendiluze	1274,5	7. Igor Elortza	1235,5
4. Jon Maia	1257,5	8. Jexux Mari Irazu	1222

Aipatu beharra dago, Andonik eta Maialenek 38na bertso kantatu zituztela eta besteek 27na.

Ezustekoa, atsegina gainera, Sustrai Colina gazteak emandakoa izan zen. Saio izugarria burutu zuen, etorkizun handiko bertsolaria dela erakutsiz. Meritu handikoa da bere 5. postua (4.etik oso gertu), kontutan harturik Belodromoko oholza gainera 19 urterekin igo zela.

Gauza bat garbi ikusten da: Andoni Egaña, zarauztar bertsolari bikainak, txapelari eusten lanak izango dituela, gazte talde hau indartsu datorrelako. Beraz, bertsozale guztiok gozatzeko aukera izango dugulakoan gaude. Bertsolaritza sasoi onean dago.

Hurrengo Txapelketa Nagusian ikusi beharko da Andoni Egaña gai den, ala ez, laugarren txapela lortzeko. Aukera izango du eta lortuz gero, bakarra bihurtuko litzateke historia osoan.

HISTORIAN ZEHAR JOKATURIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIAK

	<u>Urtea</u>	<u>Txapelduna</u>	<u>Adina</u>	<u>Hiria</u>	<u>Lekua</u>	<u>Data</u>
I.	1935	<i>Basarri</i>	21	Donostia	Kursaal	1935-01-20
II.	1936	<i>Txirrita</i>	75	Donostia	Victoria Eugenia	1936-01-19
III.	1960	<i>Basarri</i>	47	Donostia	Victoria Eugenia	1960-12-18
IV.	1962	<i>Uztapide</i>	53	Donostia	Astoria	1962-12-30
V.	1965	<i>Uztapide</i>	55	Donostia	Anoeta pilotalekua	1965-01-01
VI.	1967	<i>Uztapide</i>	58	Donostia	Anoeta pilotalekua	1967-06-11
VII.	1980	Xabier Amuriza	38	Donostia	Balda pilotalekua	1980-01-06
VIII.	1982	Xabier Amuriza	41	Donostia	Balda pilotalekua	1982-12-20
IX.	1986	Sebastian Lizaso	28	Donostia	Belodromoa	1986-03-23
X.	1989	Jon Lopategi	55	Donostia	Belodromoa	1989-12-17
XI.	1993	Andoni Egaña	32	Donostia	Belodromoa	1993-12-19
XII.	1997	Andoni Egaña	36	Donostia	Belodromoa	1997-12-14
XIII.	2001	Andoni Egaña	40	Donostia	Belodromoa	2001-12-16

Historiari begirada bat emanda, ondorio hauek atera daitezke:

- Oraindaino 13 Txapelketa Nagusi jokatu dira. 10 aldiz txapela Gipuzkoan gelditu da, beste 3 bider Bizkaira joan delarik.
- 7 txapeldun izan dira guztira: 5 gipuzkoarrak eta beste 2 bizkaitarrak.
- Txapeldun gazteena *Basarri* izan zen (21 urte) eta zaharrena *Txirrita* (75 urte).
- Txapelketa guztietako finalak Donostian jokatu dira, leku ezberdinetan.

TXAPELDUNAK GOGORATUZ

LEHEN TXAPELDUNA

Iñaki Eizmendi, *Basarri*. Errezilgo Granada baserrian jaio zen 1913ko azaroaren 27an. Zazpi urte zituela Zarautza joan zen bizitzera. Azkenportu tabernan eman zituen bertsolari bezala bere lehen urratsak. Gero, txapela birritan lortu zuen:

Donostiako Kursaal aretoan jokatu zen I. Bertsolari Txapelketa Nagusian (1935-01-20), artean 21 urteko gaztea izanik, irabazi zuen bere lehen txapela. Harrigarria!

1936an II. Txapelketan gaijartzaile izan zen.

- Gerrak eragindako etenaldi luzearen ondoren, Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokaturako III. Txapelketa Nagusian (1960-12-18) lortu zuen bere bigarren txapela.

1962ko Txapelketa Nagusian bigarren gelditu zen *Uztapideren* atzetik. Geroztik ez zuen parte hartu Txapelketa Nagusietan.

Eskolatua ez izan arren, lan autodidaktari esker, irakurle amorratua izaki, kultura maila ona lortu zuen. Egunkari, irrati eta aldizkarietan kirol eta kultur arloak jorratu zituen.

Bertsogintzan, bat-batean nahiz jarrietan, maila bikaina erakutsi zuen. Bertsolaritzari bultzada izugarria eman zion. *Uztapiderekin* bikote iraunkorra osatuz, Euskal Herriko bazter gehienetan kantatu zuen.

1999ko azaroaren 4ean hil zen, 86 urte betetzear zegoela.



BIGARREN TXAPELDUNA

Joxe Manuel Lujanbio, *Txirrita*. Hernaniko Latze baserrian (Ereñotzu inguruan) jaio zen 1860ko abuztuaren 14an. Hamahiru urte zituela Errenteriako Txirrita baserrira joan zen bizitzera. Txapelketa bat irabazi zuen:

- Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen II. Txapelketa Nagusian (1936-01-19) garaile gertatu zen. Harrigarria bada ere, 75 urte zituela txapeldun bihurtu zen.

150 kilo inguru pisatzen zuen gizon handia zen *Txirrita*. Hargina lanbidez. Hobeto esanda, hargintzan ere ari-tua, bertsolaritza baitzen bere eginkizun nagusia. Sagar-dotegietan hamaika saio egindako bertsolari mitikoa, izugarritzko ateraldiak zituena; paregabea izan zen.

Bertsolaritzaren historian erreferentzi garrantzitsua da. Bat-batean nahiz jarrietan lan oparoa egin zuen.

1936-06-03an Altzan hil zen, txapeldun zegoelarik.



HIRUGARREN TXAPELDUNA

Manuel Olaizola, *Uztapide*. Zestoako Uztapide baserrian jaio zen 1909ko maiatzaren 10ean.

Ezkonduz geroztik Oiartzungo Ergoien auzoan bizi izan zen. Hiru aldiz txapela lortu zuen:

1962an Donostiako Astoria antzokian jokaturiko IV. Txapelketa Nagusia (1962-12-30) irabazi zuen. Bere lehen txapela izan zen.

- 1965ean Donostiako Anoeta pilotalekuan jokaturiko V. Txapelketa Nagusia ere (1965-01-01) berak irabazi zuen. Bere bigarren txapela izan zen.
- 1967an Donostiako Anoeta pilotalekuan jokaturiko VI. Txapelketa Nagusia ere (1967-06-11) garaile gertatu zen, bere hirugarren txapela jarraian jantzi zuelarik.

Nekazal giroko bertsolari zorrotza bezain zuzena izan zen *Uztapide* handia. Gizon bezala, apala eta jatorra. Hamaika aldiz *Basarri*ekin bikote ezin hobea osatuz kantatua dugu Manuel Euskal Herriko hainbat bazterretan. Beraiekin gozatzeko aukera izan genuen.

Bat-bateko bertsolaritza utzi zuenean, bertso jarrietan aritu zen, lan oparoa utzi zigularik. *Sasoia joan da gero*, bere liburuetako batean jasoak daude, hamaika pasadizo kontatuz.

1983ko ekainaren 8an hil zen Donostiako Ospitale Probintzian. Beraz, 74 urte zituela zendu zen.

**LAUGARREN TXAPELDUNA**

Xabier Amuriza. Zornotza-Etxanoko (Bizkaia) Torreburu baserrian jaio zen 1941eko maiatzaren 3an. Derioko seminarioan apaiz egin zen. Gero Zamorako kartzelan 6 urte luze igaro zituen, Francoren aurka aritzeagatik. Bertsolaritza han aztertu eta landu zuen eta ez edonola gainera. Bi bider txapela lortu zuen:

Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen VII. Txapelketa Nagusia (1980-01-06), jantzi zuen bere lehen txapela.

- Bere bigarrena, Donostiako Balda pilotalekuan jokatu zen VIII. Txapelketa Nagusia (1982-12-20) lortu zuen.

Bertsolaritza erruz jorratutako gizona dugu Xabier bat-batean zein jarrietan. Bietan maila bikaina erakutsiz gainera.

Idazle bezala, egunkari eta aldizkarietan asko idatzia da. Hortik aparte, nobela eta saiakera, besteak beste.

Bertsolaritzari buruzkoak *Hiztegi errimatua*, *Hitzaren kirol nazionala*, *Zu ere bertsolari*, eta abar.

Amurizaren eragina funtsezkoa izan zen bertso eskolen sorreran. *Basarrik*, adibidez, ez zuen bertso eskoletan sinesten; Xabierrek, ordea, bai. Azken urte hauetan oso garbi ikusi da Amurizak bide zuzenari heldu ziola.

Bertsolaritzaren historian leku berezia merezi du Xabierrek. Berak aztertu eta landu zuen bertsoaren teknika beste inork ez bezala. Maisu handia da. Gaur egun ere bertso munduan dihardu, baina, saio arruntetik at.



BOSTGARREN TXAPELDUNA

Sebastian Lizaso. Azpeitian jaio zen 1958ko urtarrilaren 20an (San Sebastian eguna). Landetako bere gurasoen tabernan, bertso giroko txoko aparta izaki, ikasi zuen bertsotan. Nola ikasi gainera! Txapelketa bat irabazitako bertsolaria dugu:

- 1986an Donostiako Belodromoan jokaturiko IX. Txapelketa Nagusian (1986-03-23) irabazi zuen bere txapela.

Bat-batekotasun izugarria eta ahots potentearen jabe den bertsolaria dugu Sebastian. Gizon handia eta bertsolari azkarra, tximista bezain azkarra; ez du gehiegi pentsatu behar izaten, gaia eman eta bertsoa borobiltzeko. *Pentium* batez hornituriko burua daukala dirudi. Komunikatzaile aparta da. Erreflejo bizi-koa. Jario izugarria du. Habanoak erretzen ere primeran moldatzen da. *Euskaldunon Egunkarian* dihardu lanean.

Joxe Lizasoren semea eta Beñaten aita da. Familian hiru bertsolari, belaunaldi ezberdineta-koak elkartu dira. Jarrai dezala tradizioak!

**SEIGARREN TXAPELDUNA**

Jon Lopategi. Muxikako (Bizkaia) Aldauri baserrian jaio zen 1934ko martxoaren 17an. Hamar urte igaro zituen fraile sakramentinoetan. Txapel baten jabe da:

1989an Donostiako Belodromoan jokaturiko X. Txapelketa Nagusian (1989-12-17) irabazi zuen bere txapela.

1982ko Txapelketa Nagusian, txapeldunordea izan zen.

Bertsolari sakona bezain zorrotza eta abertzale sutsua da. Azpillagarekin bikote historikoa osatu zuen Francoren diktadurapeko urte ilun haietan. Ausart aritzen zen bikotea; beldurrik gabe. Euren bertsoak entzun eta gozatzeko aukera izan genuen, hamaika aldiz, gure gaztaroan.

Bizkaiko Ikastolen Elkartean ere bertsolaritza gogor jorratutakoa da, eta bere seme den Aritz ere, bertsolari ezaguna da.

**ZAZPIGARREN TXAPELDUNA**

Andoni Egaña. Zarautzen jaio zen 1961eko urriaren 2an. Gaur egun bertan bizi da. Hiru txapel lortu ditu orain arte:

1993an Donostiako Belodromoan jokaturiko XI. Txapelketa Nagusia (1993-12-19) irabazi zuen. Bere lehen txapela izan zen.

- 1997an Donostiako Belodromoan burututako XII. Txapelketa Nagusia ere (1997-12-14) berak irabazi zuen. Bigarren txapela zuen.
- 2001ean Donostiako Belodromoan jokaturiko XIII. Txapelketa Nagusian ere (2001-12-16) garaile gertatu zen. Bere hirugarren txapela lortu zuen.

Egungo txapelduna da. Hiru Txapelketa Nagusi irabazi ditu jarraian, *Uztapideren* marka berdinduz. 80ko



hamarkadan Amuriza fenomenoak eraginda murgildu zen bertsolaritzan. Hogei urteotan izugarri landu du gaia eta bertsolaritzak aurrerapauso handia eman du Andoniri esker.

Euskara maila bikainaren jabe da eta bertsolari aparta, paregabea; goitik beherakoa. Ironia fina du eta ziria sartzen ezin hobea da.

Euskal Filologian lizentziatua da. Telebistako gidoi-egile, prentsa-artikulugile eta idazle lanetan dihardu gaur egun. Urtean 200 bertso saio baino gehiago burutzen ditu eta 400 agerraldi publiko inguru izaten ditu guztira. Erretzaille sutsua ere bada, baina, ez dugu nahi bera erretzerik. Gehiegi da Andoni; har iezaiozu neurria! Bertsolaritzak behar zaitu eta.

